

# Asisko gutuna

2017ko maiatza. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

103. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

“Ez da ezer zaharragorik atzoko egunkaria baino”. Esaldi honek primeran jasotzen du gure berri nahia. Baina badira bai jaso eta botatzen ez ditugun berriak, sakonago iristen zaizkigulako. Hor konturatzen gara axola zaizkigun kontuak ez direla kontuak, baizik pertsonak.

## Gogoetarako gaia

### *Egiaren bila*

Gizadiaren historian sekula ez da hain handia izan egungo gertaerak ezagutzeko ahalbidea. Sekula ez gara orain bezain berehala informatuak egon; eta dena informazio-bideei esker: irratia, telebista, prentsa, interneta... Ia dena gertatu ahala eta zuzenenean eskaintzen zaigu. Geure ustez gero eta gehiago ezagutzen dugu mundua, bertan bizi direnak eta bertan gertatua. Eta aldi berean, sekula ez da gaur bezalako indarrez sentitu, manipulatu egiten digutela errealitatearen pertzepzioa. Hainbeste berri dago, hainbeste iritzi, hainbeste premia... Argitaratzen ez denak ez du existentziarik. Eta horrez gain seriotasun eta hunkiberatasun berberaz eskaintzen zaizkigu gertaerarik hutsalenak etab milioika gizakiren errealitate-rik zigagabeenak. Ez dakigu zeri heldu.

Guk geuk erabakitzen dugu neurri batean egoera honetan daukagun lekua, eta geurea da gure begirada ahal bezain doituena izateko erantzukizuna. Horrek eskatzen digu errealitatearen bilaketa eta bereizkuntza, begirada

kritikoa informazioari, iritziei, entzuten eta esaten ditugun hitzei. Munduarekiko eta beste gizakiekiko solidaritateak egia bilatzeko gogo behar du, ekitatearen eta justiziaren arrastoari etengabe jarraitzea. Bilaketa hori gu geuregan ere egiten dugu, ahal den neurrian geure begiratzeko modua, balioztatzea eta jokatzea argituz. Jabetzen gara horretarako ditugun mugatasun handiez, baina bizi-jarrera horrek egia gehiagoz hurbilduko gaitu pertsona eta egoeratar, prest egote handiagoz errealitatea bere konplexutasunean onartzeko, eta dituen aberastasun eta miseriak aurkitzeko.

Jainkoak bultzatzen gaitu horretara gure garaiko gizon-emakumeen onerako eta zuzenbiderako. Jesusek jakin zuen begiratzeko eta ikusten giza bihotzean zegoena eta bizitza suertatu zitzaizkion gorabehera zehatzetan jokoan zegoena. Frantziskok, Jesusen jarraipenean, ez zion utzi errealitateari, bere konplexutasunean, begiratzeari, eta Ebanjelioa bere osoan bizitu zuen errealitate horretan.

## Ebanjelioko pasartea: Lk 11,33-36

«Inork ez du kriseilua pizten eta ezkutuan edo ontzipean ipintzen, argimutilaren gainean baizik, sartzen direnek argia ikus dezaten. Begia duzu gorputzari argi egiten dion kriseilua. Begia onik duzunean, zure gorputz osoa ere argitan dabil. Begia gaixo duzunean, ordea, zure gorputz osoa ere ilunpetan dabil. Begira, bada, zure barruan argi behar lukeena ez dadin ilun gerta. Beraz, goitik beheraino argitan bazaude, inongo ilunperik gabe, kriseiluak bere distiraz argitzen zaituztenean bezala zara argitsu».

## Frantziskotar espiritualtasuna

Zorionekoa bere burua hobetzat ez duen zerbitzaria jendeak handiesten eta goratzen duenean, kaskar, sinple eta mespretxagarritzat daukanean baino, zeren eta gizakia Jainkoaren aurrean zenbat den, hainbestexa da eta ez gehiago. Zoritxarrekoa, besteek goian jarri dutelarik, bere gogoz jaitsi nahi ez duen erlijiosoa! Zorionekoa, berriz, bere gogoz kontra goian jarri dutelarik, beti besteen oinetan egon nahi duen zerbitzaria! (Ahol 19)

Frantziskorentzat Jainkoa da norberaren egiaren erreferentzia-puntua: *Jainkoaren aurrean zenbat den, hainbestexa da eta ez gehiago*. Ikuspuntu honetatik askatasun handia lortzen du. Neurekiko egiak ez du zerikusirik besteen losintxa eta kritikekin, zeintzuen biktima erraz izatera sarriro gatozen. Ez du ere zerikusirik nork bere burua perfektutzat nahiz debaluatutzat jotzeko premiekin, zeintzuen atzean ezkututzen, babesten eta hainbat gezurretan sartzen garelarik.

“*Jainkoaren aurrean zenbat garen, hainbestexa gara eta ez gehiago*”, eta hortxe kokatzen gara lekurik onenean, toki apropos eta egokian, besteari begiratzeko ere, berorren egia nik berarekiko pentsatzen edo sentitzen dudana baino handiagoa delarik. Haren egiarik sakonena Jainko Aita errukitsuaren bihotzean dago.

## Otoitza

Jesus, Zu zara...

Hitza, aldarrikatua izateko,  
egia, esana izateko,  
argia, piztua izateko,  
bizia, bizitua izateko  
maitasuna maitatua izateko.

Jesus, Zu zara...

poza, elkarrekin banatzeko,  
bakea, emana izateko,  
biziaren ogia, jana izateko.

Jesus, Zu zara...

goserik dagoena, elikatua izateko,  
egarri dagoena, ase izateko,  
biluzik dagoena, jantzia izateko  
etxerik gabea, jaso izateko,  
bakarrik dagoena, maitatua izateko.  
mesprezaturia, onartua izateko.

Kalkutako santa Teresa

## Gutuneko azken hitzak

“Azken berriak jakin nahi ditudanean, San Paulo irakurtzen dut.” (Leon Bloy)

### 2017ko maiatzeko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate maiatzeko erreferentzia guztiak:

1 Jn 6, 22-29	8 Jn 10, 11-18	15 Jn 14, 21-26	22 Jn 15, 26-16, 4a	29 Jn 16, 29-33
2 Jn 6, 30-35	9 Jn 10,22-30	16 Jn 14, 27-31a	23 Jn 16, 5-11	30.Jn 17, 1-11a
3 Jn 14, 6-14	10 Jn 12, 44-50	17 Jn 15, 1-8	24 Jn 16,12-15	31 Lk 1, 39-56
4 Jn 6,44-51	11 Jn 13, 16-20	18 Jn 15, 9-11	25 Jn 16,16-20	
5 Jn 6,52-59	12 Jn 14, 1-6	19 Jn 15, 12-17	26 Jn 16, 20-23a	
6 Jn 6, 60-69	13 Jn 14,7-14	20 Jn 15, 18-21	27 Jn 16, 23b-28	
7 Jn 10, 1-10	14 Jn 14,1-12	21 Jn 14, 15-21	28 Mt, 28, 16-20	

Asisko Frantzisko eta Klara bizi izan ziren lekuak gogoeta eta otoitz eginez ezagutzea eskaintzen dizugu.

Bilaketa, atsedena... edo beste era bateko nekea bizitzeko aukera izan dezakezu.

ASISERA GOAZ 2017ko UZTAILAREN 1etik 8ra.

Interesa baduzu, esaguzu: 615-785328 [pastoralfranciscanos@yahoo.es](mailto:pastoralfranciscanos@yahoo.es)

Maiatzeko otoitza 25an izango da